

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure negozioan hainbat funtsezko jarduera egin behar dira, enpresak ondo jardun dezan.

Gure kasuan, hauek dira funtsezko jarduerak:

- Produkzioa.
- Arazoak konpontzea.
- Plataformako edo Sareko jarduerak.

Gure funtsezko jarduera ekoizpena da, hau da, bolaluma produzitzen duen enpresa bat gara. Beraz, bolalumak diseinatzeko, ekoizteko eta entregatzeko betekizunak ditu gure enpresak.

Hala ere, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea eta on line denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera ere.

Bestetik, etorkizunera begira plataformako edo sareko jarduerak ere garrantzitsuak izan daitezke. Printzipioz, lokal batean hasiko gara, baina nork daki etorkizun batean non egongo garen.

Azkenik, garrantzirik gutxiena arazoak konpontzea emango diogu. Printzipioz bolalumak konpontzeko intentziorik ez dugu, azkenean guretzako beste kostu bat delako, eta enpresa hasi berri bat baikara. Baina noizbait merkatuko eskaera handia baldin bada eta gure enpresa zentzu batean handitzen badoa, agian birplanteatu dezakegu bolalumak konpontzea bertan. Azkenean, alde batetik begiratuta kostua izan daiteke, baina bestetik, diru-sarrera ere izan daiteke.